**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2024SDBD0043 **Erreg. data/**Fecha reg**:** **Erreg. zk** ./ Nº registro**:** 000000
**Gaia/**Asunto**:** 5.4 DIRULAGUNTZA LERROA: ESKOLA KIROLA. FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA / Línea de Subvención 5.4: Deporte Escolar. Subvención a las Familias
**Eskatzailea**/Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

## OINARRIAK

### 1- Dirulaguntzaren xedea.

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Errenterian kokaturiko ikastetxeek eta ikasleen guraso-elkarteek (IGE) antolatutako eta ikastetxeetan burutzen diren eskola kiroleko programetan diharduten erabiltzaileei, 2024-2025 denboraldikoak, hau da, 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31 bitarte egindakoak. Horrez gain, horien helburuek bat etorriko beharko dute Udalaren Kiroletako azpisailak dituenekin.

Horrela, bada, herritarrak oinarrizko kirol-zerbitzuak eskura ditzaten errazteko, zehazki, ikastetxeetan burutzen diren eskola kiroleko programetan diharduten erabiltzaileei dagokienez, deialdi hau egin da.

### 2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua.

Artikuluan eta aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldez aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean.

Ikastetxeetan burutzen diren eskola kiroleko programetan diharduten erabiltzaileei beren parte-hartzearen kuota finantzatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2025eko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da:

- 1.1530.480.03.341.30: Familientzat dirulaguntza. Eskola Kirola.

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 5.000,00.- eurokoa da.

## BASES

### 1- Objeto de la subvención.

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones a las personas usuarias en los programas de deporte escolar que se realizan en los centros educativos, organizadas por los centros escolares y asociaciones de padres y madres (AMPAS) radicados en el municipio de Errenteria durante la temporada 2024-2025, es decir, la temporada y actividades realizadas entre el 1 de septiembre de 2024 y el 31 de agosto de 2025.

Así, para facilitar el acceso de la ciudadanía a los servicios deportivos básicos, concretamente, a las personas usuarias en los programas de deporte escolar que se realizan en los centros educativos, se ha elaborado la presente convocatoria.

### 2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

En base a la norma municipal de ejecución presupuestaria, esta convocatoria está siendo tramitada anticipadamente; es decir, en un ejercicio presupuestario anterior a la de su resolución y ejecución del gasto.

El importe de las subvenciones para financiar a las personas usuarias la cuota de su participación en los programas de deporte escolar que se realizan en los centros educativos irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2025:

- 1.1530.480.03.341.30: Subvención a Familias. Deporte Escolar.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 5.000,00.- euros.

ESKU42835454-b24d-4b9d-a3ed-5dda8f97a7d4

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Si dicha partida posteriormente fuese ampliada en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotean baldintzapean baitago. Kreditu hori dialdihau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de la convocatoria.

2025eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2025 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean harturik, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin harturik ere.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Dirulaguntza gehienez Eskola Kirolaren kuota gisa ordaindutakoaren %100 izango da.

La subvención máxima será del 100% del importe abonado en concepto de cuota de Deporte Escolar.

Deialdian esleitutako kopurua nahikoa ez balitz onartutako eskaera guztien kopuru osoa ordaintzeko, dirulaguntza proposamena proportzionalki gutxituko da.

En el caso de que el crédito asignado en la convocatoria no fuera suficiente para cubrir el total de las solicitudes aceptadas, la propuesta de subvención se disminuirá proporcionalmente.

**3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.**

**3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**

Oro har, dirulaguntza honetarako aukera izan dezakete herritar guztiek, ondoko baldintzak bete ezkero:

- Eskola kirolean izena emanda egotea eta parte hartzea kuotaren likidazioaren helburu den epe osoan (2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra arte, edo, hala badagokio, ikastetxeak ezarritako aldia). Helburu horrekin, kontsideratzen da Eskola kirolean parte hartzea dela ikastetxeak programatutako ekintzen %75era joatea gutxienez (entrenamendu saioak eta asteburuetako partidak).

Con carácter general podrá optar a esta subvención toda la ciudadanía que reúna los siguientes requisitos:

- Estar inscrito y participar en el programa de Deporte escolar durante todo el periodo al que se refiere la cuota objeto de liquidación (1 de septiembre de 2024 al 31 de agosto de 2025, o en su caso el periodo establecido por su centro escolar). A tal efecto se considera participar en el programa de Deporte Escolar asistir a un mínimo del 75% de las actividades (entrenamientos y partidos de fin de semana) programados por el Centro Escolar.

ESKU42835454-b24d-4b9d-a3ed-5dda8f97a7d4

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza programetan edo antzekoetan sartuta egotea eskaera aurkezteko momentuan.

- Tener concedida la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) o estar incluidos en programas de Ayuda de Emergencia Social o similares en el momento de presentar la solicitud.

- Udalerriarekiko zerga-betebeharrak eguneratuak edukitzea edo ordaindu gabeko zorren ordainketan luzapena emana edukitzea.

- Estar al corriente en las obligaciones fiscales con el municipio o tener concedido un aplazamiento de pago sobre las deudas pendientes.

Deialdi honetarako aukera izateko beharrezko diren betekizunak lortzen den dirulaguntzari dagokion aldi osoan bete behar dira. Bete ezean, onuraduna den pertsona, onuradun-izaera hori galduta, behartuta egongo da deialdi honen kargura jasotako kopuruak itzultzera. Hori guztiak izaera orokorreko beste araudi guztiak aplikatzetik erator litezkeen zigorren kalterik gabe.

Los requisitos necesarios para el acceso a la presente convocatoria deberán mantenerse para la totalidad del periodo para el que se obtenga la subvención. En caso de incumplimiento, la persona beneficiaria perderá tal condición, estando obligada al reintegro de las cantidades percibidas con cargo a la presente convocatoria. Todo ello sin perjuicio de las sanciones que puedan derivarse de la aplicación de otras normativas de carácter general.

Betekizunak betetzen direlako egiaztapena ofizioz egingo du udalak, dauzkan erregistroen bidez edo beste administrazio batzuekin ezarritako hitzarmenen bidez, salbu eta eskatzailea berariaz aurka agertu bada. Kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko du.

La comprobación del cumplimiento de los requisitos se realizará de oficio por el Ayuntamiento a través de los registros disponibles o a través de los convenios establecidos con otras administraciones, salvo que la persona solicitante se haya opuesto expresamente. En ese caso, deberá aportar la documentación.

<u>Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa</u>:

Eskatzaileek, eskaerarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

a) Familia-liburua.

b) Eskaria egiten duen pertsonak kontu korronte bat ireki duela titulartasuna egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

c) Ikastetxeak emandako agiria egiaztatzeko ikasleak Eskola Kirolean parte hartu duela, kuota osoa ordaindu duen eta programan zenbat denboran parte hartu duen adieraziz.

<u>Documentación a presentar con la solicitud</u>:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud la siguiente documentación:

a) Libro de Familia.

b) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la persona solicitante.

c) Documento expedido por el Centro Educativo que certifique la participación del alumnado en el programa de Deporte Escolar, en el que se indique cuota íntegra abonada y periodo de participación en dicho programa.

ESKU42835454-b24d-4b9d-a3ed-5dda8f97a7d4

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Gizarte Segurantza – Prestazio Publikoen kontsulta.

- Lanbide - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kontsulta.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea.**

Dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean hasiko da.

**5.- Dirulaguntza ordaintzea.**

Dirulaguntzaren diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

%100 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin eta egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**6.- Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Dirulaguntzaren ordainketa, eskola kiroleko programan parte-hartzea justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2025eko abuztuaren 31a.

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberán aportar los documentos acreditativos exigidos en la convocatoria.

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.

- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

- Instituto Nacional Seguridad Social INSS - Consulta de Prestaciones Sociales Públicas.

- Lanbide - Consulta Renta de Garantía de Ingresos.

**4.- Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención será de 30 días naturales que comenzará el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**5.- Abono de la subvención.**

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

100% tras la resolución de asignación de subvenciones y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado y tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

**6.- Justificación de la subvención.**

El pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa de participación en el programa de deporte escolar, con fecha límite 31 de agosto de 2025.

ESKU42835454-b24d-4b9d-a3ed-5dda8f97a7d4

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da:

a) Eskaera.

b) Eginiko gastuen ikastetxeak emandako egiaztagiria.

c) Ikastetxeko Eskola Kirola programaren arduradunak sinatutako agiria, programan izan duen partehartzea eta erabiltzaileak ordaindutako zenbatekoa.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente:

a) Solicitud.

b) Justificante del gasto realizado emitido por el centro educativo.

c) Documento firmado por la persona responsable del programa de Deporte Escolar en el centro en el que se refleje el grado de participación en dicho programa y el importe abonado por la persona usuaria.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.

Errenteria, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, a la fecha de la firma

Kirolak Departamentuko Arduradun Teknikoa / El Responsable Técnico del Departamento de Deportes

Stua./Fdo.: Luis Peña

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2024SDBD0043-OINARRIAK DIRULAGUNTZAK/BASES SUBVENCIONES |

**Digitalki sinatua:**

**KP PEÑA, Luis**
**Kiroletako arduraduna**
**Data:** 2024/12/23 08:25:19